



MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEA
PEDIATRIA SAILA

SEPSIAREN TRATAMENDUAREN BETETZE MAILA ETA BERE ERAGIN KLINIKOA LARRIALDI ZERBITZU BATEAN

DOKTOREGO TESIA
MIREN ARRIETA BERNARAS

2016

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean



MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEA
PEDIATRIA SAILA

SEPSIAREN TRATAMENDUAREN BETETZE MAILA ETA BERE ERAGIN KLINIKOA LARRIALDI ZERBITZU BATEAN

EGILEA: MIREN ARRIETA BERNARAS

ZUZENDARIAK: FELIX ZUBIA OLASKOAGA
JAVIER KORTA MURUA

DONOSTIA, 2016ko URRIA

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik"

Joxean Artze.

Euskera bihotzean det
eta erdara ezpainetan
esaera zaharrak zoritxarrez
betetzen dira benetan

Zergatik ez dugu egiten
arbaso zaharren erara
euskaraz biziz, euskaraz haziz
gure herrian euskaraz?

Hizkuntza bat ez da galduko
jendeak ez badu ikasi nahi
dakigunok dugu errua
ez bagara erabiltzeko gai

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	7
ESKERTZAK	11
SIGLAK ETA AKRONIMOAK	13
SARRERA	15
1. Definizioak	17
2. Epidemiologia	20
3. Lan ildoak	21
LAN HIPOTESIA	25
HELBURUAK	25
Helburu Nagusiak	
Bigarren mailako helburuak	
METODOLOGIA	29
ANALISI ESTADISTIKOA	35
EMAITZAK	39
1. Datu orokorrak	41
1.1 Aztertutako gaixoen ezaugarri basalak	41
1.2 Ezaugarri basalak, aldagai jarraiak	43
2. Neurrien betetze maila	46
3. Bilakaera klinikoa	52
4. Mikrobiologia	54
4.1 Fokua	56

5. Hilkortasuna	57
5.1 Gaixoen ezaugarri nagusiak	57
5.2 Azpiko gaixotasunak	59
5.3 Hilkortasuna eta neurrien betetze maila	60
5.4 Hilkortasuna eta bilakaera klinikoa	65
6. Lekualdatzeak	67
7. Azterketa aldagai-anitza	71
EZTABAIDA	75
1. Lagin deskribapena eta intzidentzia	75
2. Neurrien betetze maila	77
3. Datu orokorrak	80
4. Hobekuntza proposamenak	82
ONDORIOAK	83
BIBLIOGRAFIA	87

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

ESKERTZAK

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi nizkioke tesi honen zuzendarietako bat izan den Felix Zubia Olaskoaga doktoreari: bere babes, laguntza eta animoak ezin bestekoak izan baitira. Mila esker lana bide zuzenetik eraman eta bukaeraraino bideratzeagatik.

Halaber, baita Javier Korta Murua doktoreari ere, bere laguntza eta jakinduria eskeintzeagatik tesi honen zuzendaritzan.

Bestetik Mariaje , Elena eta Amaia Bernaras doktoreei eskertu nahi nieke, bakoitzak bere erara ni honaino iristeko bultzadaxoa eman izana.

Nire lankideei eta bereziki Patxi Ezponda doktoreari eskerrak ematen dizkiet lan hau aurrera eramateko bere laguntza eskaini didatelako behar izan dudanean.

Eskerrik asko Arantzazu Arrospide doktoreari, matematikari bikaina, bere ahalmen, laguntza eta denbora osoa eskaini baitizkit tesi hau aurrera ateratzeko.

Aitor Lizarazu euskararen aditu eta euskaltzale amorratuari eskerrak, hizkuntzak behar dituen zuzenketak maitekiro, exigentzia eta zuhurtziaz egiteagatik, ezinbestekoak izan dira lana txukuntzeko.

Gaian aditua den Izaskun Azkarate doktoreari, bere ekarpenek lana hobetzen lagundu dute.

Etxeko nire bi altxorrei, lapurtu izan diedan denbora oparitu didatelako proiektu hau aurrera atera nezan, mila esker ondoan egon zaretelako.

Nire guraso eta ahizpari beti ondoan daudelako, eta nola ez amona Seberi, lan diziplina eredu ezin hobea izan delako.

Azkenik eskerrak eman nahi nizkieke, tesi hau aurrera ateratzeko beren ekarpena egin duten guztiei, nahiz eta hemen izendatzea ahaztu zaidan, guztion laguntzarekin atera baita aurrera.

Mila esker guztioi.

SIGLAK eta AKRONIMOAK

ACCP: American College of Chest Physicians

SCCM: Society of Critical Care Medicine

SOFA: Sequential Organ Failure Assessment

EGDT: Early Goal-Directed Therapy

HES: Hanturazko Erantzun Sistemikoa

TAS: Tentsio Arterial Sistolikoa

BTA: Batez besteko Tentsio Arteriala

SSC: Surviving Sepsis Campaign

EPB: Erdiko Presio Benosoa

EOSB: Erdiko Oxigeno Saturazio Benosoa

APACHE II: Acute Physiology and Chronic Health Evaluation II

ZIU: Zainketa Intentsiboen Unitatea

ESICM: European Society of Intensive Care Medicine

ATS: American Thoracic Society

SIS: Surgical Infection Society

PCR: Polymerase Chain Reaction

PaO₂: Oxigeno presioa arterian

FIO₂: Oxigenoaren zatidura inspiratorioa

INR: International normalized ratio (nazioarteko zatidura normalizatua)

TTPa: Tronboplastina partzial aktibatuen denbora

BM: Bihotz Maiztasuna

AM: Arnas Maiztasuna

T^a: Tenperatura

O₂Sat: Oxigeno Saturazioa

S-A: Sarrera-Artapen denbora

AB: Antibiotikoa

ORL: Otorrinolaringologia

EZEL: Escherichia Coli EZBL sortzaile (EZBL: espektru zabaleko beta-laktamasa)

SAME: Staphylococcus aureus metizilin-erresistente

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

PPP marka: Pluripatologiko marka

SARRERA

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

SARRERA

SEPSIAREN EGOERA GAUR EGUN

I. DEFINIZIOAK.

Sepsi larria, prozesu infekzioso batek eragindako, definizio, diagnostiko eta tratamendu zaila duen sindrome konplexu bat da^{1,2}. Bertan, ehunetako perfusioaren hondamena eta disfuntzio organikoaren ebidentzia nabarmena dira. Odol zirkulazioan mikroorganismoak edota beren toxinak sartzean eragiten da, pairatzen duen ostalariak erantzun inflamatorio indartsu bat sortzen duelarik, defentsa mekanismoen autorregulazioa galeraziz^{3,4}. Era honetan, inflamazioa errazten duten substantzien edo artekarien sorrera sustatzen du, hauek koagulazioa eta fibrinolisia aktibatuz. Faktore hauek guztiak erlazionatzen direnean, infekzioa kontrolatu daiteke edo sepsi larri edo shock septikora jo lezake. Sepsi larria, ospitaleratze arrazoi ohikoenetako bat da eta hilkortasun maila altua du^{5,6,7}.

Sepsiaren definizioa kontsentsuetan oinarritzen da, hain zuzen ere 1991. urtean *American College of Chest Physicians* eta *Society of Critical Care Medicine* (ACCP/SCCM)-en artean egindako adostasun konferentzian proposatu ziren honako definizio hauek:

Infekzioa: ostalariaren ehun esterilak mikroorganismo ezberdinek hartzen dituztenean sortzen den hanturazko erantzuna.

Bakteriemia: bideragarri diren bakterien presentzia odolean. Birusak, onddoak edo parasitoak daudenean antzeko eran definitu behar da (biremia, fungemia, parasitemia...).

Hanturazko erantzun sistemikoa (HES): Jatorri infekzioso edo ez infekziosoa eduki dezakeen, hanturak sortutako adierazpen klinikoa:

Infekzioaren ondorioz sortutako erantzun sistemikoak, urrutiko organoetan osoko hanturazko erantzuna sor dezake, atal anitzetako disfuntzioa garatuz^{8,9}, sepsiaren larritasunaren espektroan azken maila izanik. Bone et al.-ek, konferentzia honetan lehenengo aldiz adierazi zuten, kontzeptu hauek prozesu beraren mailakako fase desberdinak zirela¹⁰. Azalpen guzti hauetatik ondorioztatzen dena da, hanturazko erantzun sistemikoak sepsian jokatzen duen papera funtsezkoa dela, sortzen diren adierazpen klinikoak, mikrobioen patogenizitatearen emaitza soilak ez direla onartzen baita.

Hala ere, definizio hauek motz geratzen zirela eta kritika ugari izan zituzten^{8,11,12}, eta 2001eko abenduko kontsentsuan, definizio hauek aldatzeko nahikoa ebidentzia ez zegoen arren, infekzioaren aurrean erantzun klinikoa hobeto interpretatzeko sepsiaren zeinu eta sintomen zerrenda zabaltzea erabaki zen¹³.

Lan hau bukatzeaz zegoela, 2014 eta 2015 urteen artean munduko espezialista desberdinak elkartu ziren kontsentsu bidez definizioak berrikusteko eta 2016 urte hasieran dokumentu berri bat aurkeztu dute¹⁴, azken urteetako berrikuntzen aurrean sortutako beharrei erantzuteko asmoz. Proposatzen dutenez, Sepsiaren definizioa hau litzateke: infekzio baten aurrean ostalariak sortutako, bizitza mehatxatuko duen, erregulazio gabeko erantzunaren ondorioz sortzen den organo gutxiegitasuna. Shock septikoa berriz, hiltzeko arriskua handiagoa duen sepsiaren azpitalde bat litzateke, maila zelular eta metabolikoan sortzen diren aldaketak direla eta.

Egileen hitzetan, ez da egokia hanturazko erantzun sistemikoak sorturiko bi edo zeinu gehiago kontutan hartzea sepsia diagnostikatzeko, diskriminatzeke balio oso txikia duela argudiatuz; izan ere, ospitalean dauden gaixo gehienek izan ditzakete zeinu hauek. Honegatik, nahiz eta ZIU zerbitzuetatik kanpo ezezagunagoa den, SOFA eskala erabiltzea gomendatzen dute organo gutxiegitasuna eta hilkortasuna aurreikusteko (Sequential Organ Failure Assessment, nahiz eta hasiera batean Sepsis-related Organ Failure Assessment izan). Honen balioa bi baino handiagoa denean hilkortasuna %10 baino gehiagoko dela esan nahi du. Hala ere SOFA kalkulatzeko laborategiko

balioak behar direnez, qSOFA (quick SOFA) terminoa sortu dute sepsia lehenbailehen identifikatu eta neurriak hartzen hasteko.

qSOFA irizpideak: arnas maiztasuna minutuko 22 edo handiagoa izatea

alterazio neurologikoa agertzea

TAS 100mmHg edo gutxigokoa izatea

Honen aurrean SSCek erantzun bat eman du, gogoraraziz qSOFA-k ez duela sepsia identifikatzen, lagundu dezaken arren hilkortasuna eta egonaldia aurreikusteko balio bat dela. Infekzioa dagoen edo ez jakiteko betiko zeinu eta sintomak erabiltzeko, eta lehen orduetako zainketa multzoekin jarraitzeko orain arte bezala.

2. EPIDEMIOLOGIA.

2001. urtean, Angus et al-ek, sepsiaren eragina 100.000 pertsonako 73,6tik 175,9ra igo zela jaso zuten 1979 eta 1989 urteen artean Estatu Batuetako biztanlerian^{15,16,17}.

Entitate hauek eragiten zuten hilkortasun tasa %30-50 artean zegoen 2002 urtean¹⁸, mundu mailan urteko 500.000 hildako eraginez; bihotzeko infartu akutuak adina, eta hilkortasun hori urteko %1,5 igotzeko aurreikuspena zegoen.

Larrialdi zerbitzuan artatzen diren gaixoen artean %5-15ek gaixotasun infekzioso bat duela balioztatzen da eta hauetatik %20,6k ospitaleratzeko beharra izango duela¹⁹.

Leon Gil et al-en arabera, espainiar estatuan, urtean 50.000-100.000 sepsi kasu ematen dira eta hauetatik %30 sepsi larri edo shock septikora bilakatuko dira²⁰. Sepsi larriaren eragina Espainiar estatuan 100.000 biztanleko 104 kasukoa da, %20,7ko hilkortasunarekin, shock septikoaren kasuan berriz 100.000 biztanleko 31 kasukoa da eta hilkortasuna %45,7koa^{21,22,23}. Nahiz eta tratamendu berriek hauen hilkortasuna murriztu dezaketen, kasu berrien intzidentziaren gorakada dela eta²⁴, 2008 urtean 2000an baino %103 kasu gehiago egon ziren²⁵, eta ordudik hildakoen kopuru totala handitzen doa^{16,23,26}: heste lodiko eta bularreko

minbiziak elkarrekin eragiten dituzten hildakoak baino gehiago sortzen ditu. Adin handiko gaixoen gorakada, arrisku handiko prozedura inbasiboen areagotzea, medikamentuei erresistente eta birulentoago diren infekzioen hedapena dira beste batzuen artean hilkortasun horren zergatia²⁵.

Kostuei dagokienean, 2000. urtean, Estatu Batuetan sepsiaren tratamenduak zuen gastua urteko 1,65 bilioi dolarretan balioeztatu zen²⁵, Europa mailan berriz 760.000 milioi dolarretan^{27,28,29} eta espainiar estatuan 500.000 milioi euro inguruan. 2006an Iñigo et al-ek aztertu zutenez, espainiar estatuan sepsi larri kasu bakoitzak 10.000 euroko gastua zuen³⁰, bihotzeko infartu akutuak baino altuagoa.

3. LAN ILDOAK.

Rivers et al-ek, 2001 urtean, helburu hemodinamikoak zituen berpizte bizkor bat (6 ordu baino gutxiagokoa) erabiltzeak, ospitale barneko hilkortasuna murrizten zuela frogatu zuten³¹, ondorengo urteetan beste lan askok baieztatu zutena^{32,33,34,35}.

Kumar et al-ek egiaztatu zuten, sepsi larri eta shock septikoan, antibiotiko egokiak diagnostikoa egin eta lehen 30 minututan eman, edota lehen 9-12 orduetan eman, hilkortasuna %17tik %74ra igotzen zela³⁶. 2002 urtean, "Bartzelonako deklarazioaren" ostean, Surviving Sepsis Campaign (SSC) nazioarteko kanpaina sortu zen, zainketa kritiko eta gaixotasun infekziosoetan espezializatutako hainbat elkartek sustatua^{37,38}, helburu garrantzitsuenetako bat, sepsi larri eta shock septikoaren hilkortasuna 2009 urterako %25 jaistera zutelarik. 2004 urtean lan-gidak garatu zituzten³⁹, profesional medikuei, sepsi larria eta shock septikoa maneiatzeko aholku eta lan ildoak eskeintzeko, zainketa multzo moduan (care bundle) ebidentzian oinarritutako tratamenduak, beti ere denbora

epe batean bete beharrekoak (berpizte neurriak <6 ordu, eta mantenu neurriak <24 ordu). Gida hauek 2008 eta 2012 urteetan berritu ziren.

Honela, sepsi larria eta shock septikoa, denbora-menpeko patologiak bihurtu dira, beren diagnostiko edo tratamenduan atzerapenak eragin negatiboa dutelarik⁴⁰, iktus edo miokardio infartu akutuan bezala. Era honetan, larrialdietako zerbitzuek paper erabakigarria betetzen dute sepsi larri eta shock septikoaren atzemate eta tratamendu goiztiarrean²⁹.

Dagoen informazio epidemiologikoaren arabera, zainketa bereziko zerbitzuak jasotzen dituen sepsi guztien artean, %30-40 larrialdi zerbitzuetatik dator. Hala ere, larrialdi zerbitzuetako sepsiaren benetako eragina zehazteke dago, gutxibalioeztapen eta kasuak desegoki definitzearen ondorioz alde batetik, eta baita ikerketa lan gehienak ospitale handietako zainketa intentsiboko unitatetan egin direlako.

EDU-SEPSIS-SURVIVING, espainiar estatuan sortu zen zainketa kritikoan adituak diren espezialistez osatutako talde bat da. Estatuko 130 kritiko areaz osatua dago, autonomia erkidego bakoitzean arduradun bat dagoelarik. Beren helburuen artean, sepsi larria edo shock septikoa duten gaixoen pronostikoa hobetzea, gaitz hauei buruzko informazioa, tratamendua eta hobekuntzak hedatzea daude.

SSC proposatutako gomendioek, sepsi larri eta shock septikoan biziraupena handitzen duten ebidentzia franko dago^{41,42}.

Fang Gao et al-ek³⁵ SSC agindutako protokoloak jarraituz lortu ziren hilkortasun tasak neurtu zituzten. Beren lanaren arabera, lehenengo 6 ordutako neurriak %52n bete ziren. Era berean jaso zuten, hilkortasun tasak biderkatu egiten zirela neurriak betetzen ez ziren kasuetan. 24 orduko neurriak berriz %30ean bete ziren.

SSC-en arabera³⁸, lehenengo 6 ordutan bete beharrekoak 2 zatitan banatzen dira:

Lehenengo **3 ordutan** hartu beharreko neurriak:

1. Laktatoa neurtu

2. Antibiotikoak jarri aurretik hemokultiboak atera
3. Espektror zabaleko antibiotikoak eman
4. Hipotentsioa badago edo laktatoa 4mmol/L-koa baino gehiagokoa denean kristaloideak eman 30ml/Kg-ko.

Lehen **6 ordutan** hartu beharreko neurriak:

5. Basopresoreak jarri (likidoak jarri arren tentsio baxua errekuperatzen ez denean) presio arterialaren media 65mmHg baino gehiagokoa izan dadin.
6. Hipotentsio arteriala ez denean berreskuratzen, nahiz eta bolumen berpiztea egin (shock septikoa), edo hasierako laktatoa 4mmol/l (36mg/dl) baino gehiagokoa bada:
 - . Erdiko presio benosoak neurtu (EPB)
 - . Erdiko oxigeno saturazio benosoak neurtu (EOSB)
7. Hasierako laktatoa altua denean, berriz ere neurtu.

(Berpiztearen helburuak, EPB ≥ 8 mmHg, EOSB $\geq 70\%$ eta laktatoaren normalizazioa dira.)

Nahiz eta sepsia tratatzeko aholku hauek ebidentzia zientifikoa izan, idatziz publikatuak egon eta hedatze eta kontzientziazio kanpainak egin diren, praktikan jartzea ospitale bakoitzaren, eta zehatzago zerbitzu bakoitzaren arabera egin da⁴³; jakina da nahi baino motelago eta atxikimendu baxuagoarekin egin dela^{44,45,46,47}. Erresuma Batuan egindako auditoria batean azaleratzen da, larrialdi zerbitzuetan lehen 6 orduetako berpizte neurriak betetzeko baliabideak urriak direla⁴⁸.

Lan hau, Zumarragako Ospitaleko Larrialdi zerbitzuan garatu da. Ospitale hau Goierri-Urola Garaiko ESIaren parte da eta 100.000 biztanle inguruko bailara barne hartzen du, 129 ohe ditu eta larrialdi zerbitzuan urteko 22.000 larrialdi inguru artatzen dira.

Proiektua 2012 urtean hasi zen. Ordurako, 2-3 urte lehenago, EDUSEPSIS kanpaina iritsi zen gure ospitalera, eta deigarria iruditu zitzaidan hilkortasun tasa hain altuak zituen entitate batek behar bezelako protokolo bat ez izatea, iktusak edo bihotzeko infartu akutuak zuten eta egun duten bezala.

Era berean, nabarmena zen sepsiak ez zuela izen handirik profesional desberdinen artean, tratamendua hala nola egiten zela, gutxi gorabeherako batean oinarrituz, eta honek guztiak jakin-mina piztu zidan.

Zumarragako Ospitalean ez zegoen gai honi buruzko daturik, ez jazoera ezta hilkortasun zenbakirik, are gutxiago ikerketa lanik. Gipuzkoa mailan bi lan berri daude^{49,50}, hauek hala ere, erreferentziazko ospitalean eginiko lanak dira, Medikuntza Intentsiboko zerbitzuan hain zuzen ere. Ez dut ospitale komarkal bateko Larrialdi zerbitzu batean honelako lanik aurkitu.

Horrela, hutsetik hasi behar izan nuen eta lehenengo, 2011n sepsi eta shock septiko kodigoekin larrialdi zerbitzuan eman ziren altak zenbatu nituen, hauek 40 bat izan ziren.

Horrela, gaiari buruz zegoen bibliografia erreparatuz lan honi ekitea erabaki nuen, aurretik daturik ez zegoenez, sepsiaren inguruan larrialdi zerbitzuan zeuden datuak aztertuz, Surviving Sepsis Campaign-en lan ildoak zenbateraino betetzen ziren ikertuz, eta lortzen ziren emaitzak argitaratutako beste lanekin alderatuz, ez baitago ospitalean bertan konparatzeko daturik.

Asmoa, sepsiaren inguruko gomendioak nola betetzen diren eta hilkortasuna gutxitzeko egin daitezkeen hobekuntzak aztertzea da.

LAN HIPOTESIA ETA HELBURUAK

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

LAN HIPOTESIA

Tesi honen lan hipotesia, Larrialdi zerbitzu batean SSC-ek emandako gomendio eta lan ildoak zenbat eta hobeto bete, orduan eta emaitza kliniko hobekak lortzen direla da. Batez ere, zenbat eta tratamendu antibiotiko enpiriko egoki eta goiztiarragoa izan, hainbat eta emaitza kliniko hobekak lortzen direla.

Hipotesi hau baieztatzeko helburuarekin, aurrera begirako behaketa ikerketa lan hau garatu da.

HELBURUAK

Helburu nagusiak:

1. Sepsiaren tratamendurako neurrien betetze maila lehen 6 orduan ezagutzea.
2. Sepsi larria edo Shock septikoa duten gaixo guztien triaje sailkapena aztertzea (arreta goiztiarra)

Bigarren mailako helburuak:

1. Sepsiaren hilkortasuna kalkulatzeko gure ingurunean.
2. Patologia honek sortzen duen bataz besteko egonaldi denbora kalkulatzeko.
3. Tratamendu antibiotiko enpiriko egoki batek sepsiaren bilakaera klinikoa hobetzen duen aztertzea.
4. Hasitako tratamendu antibiotiko enpirikoarekin lortutako estaldura maila aztertzea.
5. Infekzio talde bakoitzeko (arnas, azal, gernu...) mikroorganismo patogeno ohikoenak aztertzea.
6. Hobekuntza proposamenak aztertzea.

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

METODOLOGIA

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

METODOLOGIA

1. **Ikerketaren diseinua:** Ospital inguruan egindako aurrera begirako behaketa azterketa.
2. **Ikerketa eremua:** Zumarragako Ospitalea, Goierri-Urola Garaiko ESI barnean dago eta ia 100.000 biztanle inguru barne hartzen ditu. Ospitaleko Larrialdi zerbitzuak urtean 22.000 larrialdi inguru artatzen ditu.
3. **Ikerketa denboraldia:** 2012ko urriaren 1etik 2014ko martxoaren 31 arte, urte eta erdiko ikerketa izanik.
4. **Lagina:** Ikerketa denbora horretan 14 urtetik gora duten eta sepsi diagnostikoarekin Larrialdi zerbitzuan artatzen diren gaixo guztiek osatu dute.

Kontutan izan diren sepsiaren definizioak, SCCM/ESICM/ACCP/ATS/SISen arteko 2001eko adostasun konferentziatik¹³ ateratakoak dira:

- **Sepsia:** ondorengo 2 irizpide edo gehiago betetzen dituen edozein infekzio, susmagarria edota baieztatua:
 - Sukarra ($T^a > 38,3^\circ$) edo hipotermia ($T^a < 36^\circ$)
 - Takikardia > 90 taup/min
 - Takipnea > 30 arnask/min
 - Kontzientzia mailaren aldaketak
 - Edema edo balantze positiboa $> 20\text{ml/Kg}$ 24 orduan.
 - Hipergluzemia ($> 120\text{mg/dL}$ -ko) diabetes mellitus-ik izan gabe

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

- Leukozitosis ($>12.000/mm^3$) edo leukopenia ($<4000/mm^3$) edo kontaketa normala $\%10$ baino gehiagoko forma heldugabeak izanik.
 - PCR edo Prokaltzitonina neurri altuak,.
 - EOSB $>70\%$ edo bihotz indizea $>3.5l/min/m^2$
- **Sepsi Larria:** Organo gutxiegitasun, hipoperfusio edota sepsiak sortutako hipotentsioari lotutako gertakaria, ondorengo irizpideen bidez definitua:
 - Hipoxemia, $PaO_2/FIO_2 < 300mmHg$
 - Oliguria (diuresia $<0,5ml/Kg/h$ gutxienez 2 ordutan)
 - Kreatinina igoera $>0,5mg/dL$ edo balio totala $>2mg/dL$
 - Koagulazio arazoak (INR >1.5 o TTPa $>60seg$)
 - Tronbozopenia $<100.000/mm^3$.
 - Hiperbilirrubinemia (bilirrubina $>2mg/dL$)
 - Hiperlaktazidemia ($>1,5mmol/L$ edo $14 mg/dL$). Zifra hau gure laborategiak hartzen dituen balioetan oinarritu da.
 - Hipotentsio arteriala (TAS $<90mmHg$, BTA <65 edo $40mmHg$ -ko tentsio jaitsiera)
 - **Shock septikoa:** Beste edozein arrazoiengatik adierazi ezin daitekeen hipotentsio arterial iraunkorra, nahiz eta bolumen-berpizte egokia egin.

Kanporatze irizpide bakarra adina da: aztertutako larrialdi zerbitzuan 14 urtetik beherako gaixoak ez baitira artatzen.

5. **Aldagaiak:** kasu bakoitzean honako aldagai hauek jaso dira ondoren aztertu ahal izateko:

Adina

Sexua

Kategoria: Sepsia
Sepsi larria
Shock septikoa

Azpiko gaixotasunak: Diabetesa
Hipertentsioa
Kardiopatia
Pneumopatia kronikoa
Giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa
Gibeleko gutxiegitasun kronikoa
Minbizia
Imunogutxiegitasuna
Dementzia
Pluripatologiko marka

APACHE II puntuazioa (Acute Physiology and Chronic Health Evaluation II). Balio hau orokorrean gaixoa zerbitzura iritsi eta 24 orduan egiten da, baina gure zerbitzuan ez dutenez horrenbeste denbora pasatzen, bere egonaldiko balio txarrenekin kalkulatu da.

Infekzio fokua: Meningitisa
Infekzio otorrinolaringologikoak
Pneumonia
Gastrointestinala
Urologikoa
Larruazalpekoa

Germen patogenoa

Sarrerako bizi zeinuak: Bihotz maiztasuna
Arnas maiztasuna
Tentsio arteriala
Tenperatura
Oxigeno saturazioa

Triaje maila: 1, berpiztea, berehalako artatzea behar du
2, emergentzia, 15 minutu aurretik artatu beharrekoa
3, larrialdia, artatzea 30 minutu aurretik
4, ez hain larria, artatzea 60 minutu aurretik
5, arinena, ez larria, 120 minutu itxaron dezakeena.

Sarrera-Artapen (S-A) denbora

Laktato neurketa (neurtu den edo ez)

Laktato neurria (zenbatekoa den)

Hemokultiboak antibiotikoen aurretik atera diren

Hemokultiboak ateratzeko behar izan den denbora gaixoa iritsi denetik

Gasometria atera den edo ez

Antibiotikoak jarri diren arteko denbora

Antibiotiko egokia (behin antibiograma jakinda, jarritako antibiotiko enpirikoa egokia izan den edo ez)

Bolumena jartzerako pasa den denbora

Bolumen kantitatea

Bolumena monitorizatu den ala ez

Basopresoreak jarri diren edo ez

Basopresore mota (Noradrenalina edo Dopamina)

Diuresia neurtu

Diuresia $>0,5\text{ml/kg/ordua}$

Batez besteko tentsio arteriala (BTA) $>65\text{mmHg}$

Intubazio eta aireztatze mekanikoa erabili den

Zumarragako ospitalean ospitaleratu

Donostiako Ospitalera garraiatu

Zainketa Intentsiboen Unitatean (ZIU)n ospitaleratu

Ospitaleko egonaldia (egunetan)

Hilkortasuna (%)

ANALISI ESTADÍSTIKOA

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

ANALISI ESTATISTIKOA

Sepsi diagnostikoarekin Zumarragako Ospitaleko Larrialdi zerbitzuan artatutako gaixoen artean sepsi larria eta shock septikoa zutenen ezaugarri basalak, neurri betetze mailaren eta bilakaera klinikoaren analisi deskribatzailea egin zen lehenik eta behin. Aldagai diskretuen kasuan, maiztasun absolutu eta erlatiboak erabili ziren. Aldagai jarraien kasuan bestalde batez beteskoa eta desbiderapen estandarra alde batetik, eta mediana edo 50. pertzentila bestetik.

Honekin batera aldagai guzti hauek sepsi motarekin (sepsi larria edo shock septikoa) erlaziorik zuten edo ez aztertu zen. Sepsi mota aldagai dikotomikoa denez (bi kategoria dituen), bi kategoriako ezaugarriekin erlazio estatistikoa aztertzeko Fisherren estatistiko zehatza aplikatu genuen, hiru edo kategoria gehiagoko aldagaien kasuan, aldiz, Ji-karratu estatistikoa. Sepsi mota bakoitzerako aldagai jarraituek duten batez bestekoen arteko desberdintasuna estatistikoki esanguratsua den ezagutzeko, Studenten t-testa aplikatu genuen banaketa normala jarraitzen zuten aldagaienentzat. Banaketa normala ez zen kasuan medianak alderatzen dituen metodo ez parametrikoa, Mann-Whitney-ren U testa, aplikatu zen. Era berean, aldagaiek hilkortasunarekin eta lekualdatzeekin zuten erlazioa aztertu zen.

Azken pausoa aldagai-anitzeko analisia izan zen. Erregresio logistikoa erabili zen hiltzeko probabilitatea aldagai esanguratsuenak kontutan izanda estimatzeko. Aldagai-anitzeko analisisian aurrez egindako azterketetan esanguratsu izan diren aldagaiak hartzen ditugu kontuan orokorrean. Azkenik aukeratutako eredu estatistikoak antibiotiko denbora hiru orduz gorakoa izateak hilkortasunean zuen eragina estimatzea ahalbideratu du: alde batetik, laktatoa eta Apache II kontutan izanda, eta bestetik, antibiotikoa egokia izatearen efektua laktatoa eta Apache II kontutan izanda. Analisi guztiak *IBM SPSS Statistics v23.0* programaren bidez egin ziren eta %5ekoa izan zen definitutako esangura maila.

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

EMAITZAK

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean

EMAITZAK

1- DATU OROKORRAK:

Ikerketak iraun duen urte eta erdian sepsi diagnostikoarekin 1354 gaixo artatu dira Zumarragako Ospitaleko Larrialdi zerbitzuan. Hauetatik 194 kasu (%14,3) aztertu ditugu, sepsi larri eta shock septikoaren irizpideak betetzen zituztenak, sepsi soilak ez baita emergentzia medikoa bere baitan, nahiz eta bilakaera okerra izan dezakeen, izan ere, sepsi soilaren kriterioak edozein infekzio arinek bete ditzake. *1. taula.*

		Frekuentzia	Portzentajea %
Kategoria	Sepsia	1160	85.7
	Sepsi larria	129	9.5
	Shock septikoa	65	4.8
	Guztira	1354	100.0

1. taula. Datu orokorrak

1.1 Aztertutako gaixoen ezaugarri basalak:

- Ikerketan parte hartu duten gaixoen artean % 56,19 gizonezkoak izan dira (sepsi larria %58,91 eta shock septikoa %50,77) eta %43,81 emakumeak (sepsi larria %41,09 eta shock septikoa %49,23).
- % 84,50ak azpiko gaixotasunak zituzten. Antzeko portzentajetan bai sepsi larrian (%83,70) baita shock septikoan ere (%86,20): Diabetesa %34 inguru, hipertentsioa %57, bihotz gaitzak %38,

pneumopatia %25 eta inmunogutxiegitasuna %5 inguru. Dementzia duten gaixoak %11 eta pluripatologikoak %18 inguru dira.

- Ondorengoetan, berriz, aldea handiagoa agertzen da, estatistikoki esanguratsua izanik: giltzurrun gutxiegitasuna %17 sepsi larrian, %9 shock septikoan. Gibel gutxiegitasuna %7,75 sepsi larrian eta %0,0 shock septikoan. Minbizia % 9,30 sepsi larrian eta %21,54 shock septikoan.
- Sepsi Larrien %71,31 triajeen 3 edo gehiagoko lehenetasunarekin sailkatu da; Shock septikoan, berriz, %75,38. Triajeen 3-tik beherako lehenetasunarekin sailkatu direnak %17,82 dira sepsi larrian eta %15,30 shock septikoan. 2. taula.

		KATEGORIA				Guztira	p-balioa	
		Sepsi larria		Shock septikoa				
Total		129	%66,49	65	%33,51	194	%100,00	
Sexua	Emakumea	53	%41,09	32	%49,23	85	%43,81	0,288
	Gizona	76	%58,91	33	%50,77	109	%56,19	
Azpiko gaixotasuna	Bai	108	%83,70	56	%86,20	164	%84,50	0,834
	Ez	21	%16,30	9	%13,80	30	%15,50	
Gaixotasun kopurua	0	21	%16,30	9	%13,80	30	%15,50	0,298
	1	20	%15,50	16	%24,60	36	%18,60	
	2	46	%35,70	15	%23,10	61	%31,40	
	3	23	%17,80	15	%23,10	38	%19,60	
	>3	19	%14,70	10	%15,40	29	%14,90	
DM	Bai	43	%33,33	23	%35,38	66	%34,02	0,873
	Ez	86	%66,67	42	%64,62	128	%65,98	
HTA	Bai	73	%56,59	38	%58,46	111	%57,22	0,878
	Ez	56	%43,41	27	%41,54	83	%42,78	
Kardiopatia	Bai	46	%35,66	26	%40,00	72	%37,11	0,637
	Ez	83	%64,34	39	%60,00	122	%62,89	
Pneumopatia	Bai	31	%24,03	17	%26,15	48	%24,74	0,860
	Ez	98	%75,97	48	%73,85	146	%75,26	
Giltzurrun gutxiegitasuna	Bai	23	%17,83	6	%9,23	29	%14,95	0,137
	Ez	106	%82,17	59	%90,77	165	%85,05	
Gibel gutxiegitasuna	Bai	10	%7,75	0	%0,00	10	%5,15	

	Ez	119	%92,25	65	%100,00	184	%94,85	0,033
Minbizia	Bai	12	%9,30	14	%21,54	26	%13,40	
	Ez	117	%90,70	51	%78,46	168	%86,60	0,025
Inmunogutxiegitasuna	Bai	7	%5,43	2	%3,08	9	%4,64	
	Ez	122	%94,57	63	%96,92	185	%95,36	0,720
Dementzia	Bai	16	%12,40	6	%9,20	22	%11,30	
	Ez	113	%87,60	59	%90,80	172	%88,70	0,634
PPP marka	Bai	26	%20,20	10	%15,40	36	%18,60	
	Ez	103	%79,80	55	%84,60	158	%81,40	0,558
Triaiea	1-2-3	92	%71,31	49	%75,38	141	%72,68	
	4-5	23	%17,82	10	%15,30	33	%17,01	0,687

2. taula: Gaixoen ezaugarri basalak

1.2 Ezaugarri basalak, aldagai jarraiak:


- Adina aztertuz gero media 74,89 urtekoa dela ikusten dugu, gehiengoak 70 eta 84 urte tartean baitaude. *1go irudia.*
- Apache II kasuen %100ean kalkulatu da larrialdi zerbitzuan. Sepsis larriaren kasuan media 13,51 da, %32,56 10etik behera dagoelarik. Shock septikoan media 14,74 da, %77,7 10 eta 19 artean egonik. *2. irudia.*
- Gaixoari neurtu zaizkion bizi zeinuak hauek dira: sepsis larria; bihotz maiztasuna (BM) %99 kasutan media 102,05 izanik, arnas maiztasuna (AM) %20an, media 29,12, temperatura (T^a) %95ean, media 37,24^o, eta oxigeno saturazioa (O₂Sat) %94 kasutan, media 89,19.
Shock septikoan; bihotz maiztasuna %98n, media 98,36 izanik; arnas maiztasuna %23n, media 24,67 suertatuz; temperatura %86an, media 37,42 eta oxigeno saturazioa kasuen %98an, media 90,89 izanik. *3. taula.*

- Sarrera-Artapen denbora media kasu guztietarako 12,44 minutukoa da, estatistikoki desberdintasun esanguratsurik izan gabe bi kategorien artean.


KATEGORIA		N	%	Media	DE	Mediana	p- balioa
ADINA	Sepsi larria	129	100	74,89	14,33	78,00	
	Shock septikoa	65	100	74,88	12,69	78,00	
	Totala	194		74,89	13,77	78,00	0,792
Apache II	Sepsi larria	129	100	13,51	5,51	13,00	
	Shock septikoa	65	100	14,74	5,45	14,00	
	Totala	194		13,92	5,51	13,00	0,150
BM	Sepsi larria	128	99	102,05	24,78	102,50	
	Shock septikoa	64	98	98,36	24,84	96,00	
	Totala	192		100,82	24,80	100,00	0,332
AM	Sepsi larria	26	20	29,12	7,30	27,00	
	Shock septikoa	15	23	24,67	3,81	25,00	
	Totala	41		27,49	6,56	26,00	0,107
T^a	Sepsi larria	122	95	37,24	1,06	37,25	
	Shock septikoa	56	86	37,42	1,10	37,40	
	Totala	178		37,30	1,08	37,30	0,352
SatO2	Sepsi larria	121	94	89,39	8,96	91,00	
	Shock septikoa	64	98	90,89	7,49	93,00	
	Totala	185		89,91	8,49	92,00	0,182
S-A DENBORA	Sepsi larria	129	100	13,22	16,86	8,00	
	Shock septikoa	65	100	10,89	9,50	8,00	
	Totala	194		12,44	14,82	8,00	0,840

3. taula. Ezaugarri basalak, aldagai jarraiak.

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean



1go irudia: Adina



2. irudia: Apache II

2- NEURRIEN BETETZE MAILA:

- Gasometria arteriala %84,6 kasutan atera da (%79,85 sepsi larrian eta %92,31 shock septikoan). %10,3an ateratzea zainekoa izan da. Sepsi larriaren kasuan ez da gasometriarik atera %5,42n, shock septikoarenean berriz %4,62n.
- Laktatoa kasu guztien %77,84an jaso da. Sepsi larrien %71,32 kasutan neurtu da, batez bestekoa 31,82 da. Shock septikoen artean %90,77n neurtu da, media 27,25 izanik. *4. eta 5. taula.*
- Hemokultiboak atera diren kasuen artean %54,64-a antibiotikoa (AB) jarri aurretik atera dira, eta hauetatik %35,34 positibio izan da. Hala ere, sepsi larrien %10,85ean eta shock septikoen %20an antibiotikoa jarri ondoren atera dira. Kasuen %31,44an ez da hemokultiborik atera, %34,88 sepsi larrian eta %24,62 shock septikorako. Hemokultiboak ateratzeko batez besteko denbora 75,36 minutukoa da, 65,92 minutu sepsi larrirako eta 91,37 minutu shock septikorako.
- %81,95 kasutan antibiotikoa lehen hiru ordutan jarri da (%82,26 sepsi larrian eta %87,69 shock septikoan), %25ean lehen orduan izan delarik sepsi larriaren kasuan eta %29,23 shock septikorako. Antibiotikoa jartzeko batez besteko denbora 109,69 minutukoa izan da: 113,58 sepsi larriarentzat eta 102,28 shock septikoarentzat. Antibiotikoa jarri den kasuak kontutan izanik, %74,36an jarritako antibiotikoa egokia

izan da. Baina kasu guztiak kontutan izanik, %59,79n ez dago antibiograma daturik antibiotikoa egokia izan den edo ez jakiteko.

- Jarritako bolumenari dagokionez, kasuen %73,20n jarri da bolumena, estatistikoki desberdintasun esanguratsua dagoelarik sepsi larria (%61,24) eta shock septikoaren artean (%96,92). Bolumena jarri zaienen artean, Sepsi larriaren kasuan %81,02n lehenengo hiru ordutan jarri da bolumena eta %35,45n lehen orduan. Shock septikoaren kasuan %96,73n jarri da bolumena lehen hiru ordutan eta %49,18n lehen orduan. Bolumena jartzeko batez besteko denbora 98 minutukoa izan da, 114,16 sepsi larriarentzat eta 77,07 shock septikoarentzat (estatistikoki esanguratsua).
- Batez besteko bolumen kopurua 1658,94 ml-takoa izan da, 1312,66 ml sepsi larriarentzat eta 2093,17 ml shock septikoarentzat. Desberdintasun hau estatistikoki esanguratsua da.
- Basopresoreak guztira %31,96 kasutan jarri dira, baina taldetan sailkatuz gero, shock septikoen kasuan %87,69n jarri dela ikusten dugu eta sepsi larrien %3,88n bakarrik. Gehien erabili den basopresorea noradrenalina da (%56,45) batez ere shock septikoan (%59,65); sepsi larrian, berriz, dopamina erabili da gehiago.
- Shock septikoen %65,63n diuresia neurtu da eta hauetatik %60,47n 0,5ml/kg/ordu baino gehiagokoa izan da. Sepsi larrian, berriz, %25,78n neurtu da, kasuen %81,82n diuresia egokia izanik.

- Orokorrean, batez besteko presio arterialari dagokionez, %82,72k 65mmHg-ren gainetik zuen. 4. taula.

		KATEGORIA				Guztira	p-balioa	
		Sepsi larria		Shock septikoa				
Total		129	%66,49	65	%33,51	194	%100,00	
GASOMETRIA	Arteriakoa	103	%79,85	60	%92,31	163	%84,60	0,055
	Zainekoa	18	%13,95	2	%3,07	20	%10,30	
	Ez	7	%5,42	3	%4,62	10	%5,10	
LAKTATOA	Bai	92	%71,32	59	%90,77	151	%77,84	0,002
	Ez	37	%28,68	6	%9,23	43	%22,16	
LAKTATO NEURRIA	Laktatoa <14	14	%15,22	17	%28,81	31	%20,53	0,001
	Laktato >=14	78	%84,78	42	%71,19	120	%79,47	
HEMOKULTIBOA AB-KO AURRETIK	Bai	70	%54,26	36	%55,38	106	%54,64	0,131
	Beranduago	14	%10,85	13	%20,00	27	%13,92	
	Ez da atera	45	%34,88	16	%24,62	61	%31,44	
HEMOKULTIBOA	Positiboa	29	%34,52	18	%36,73	47	%35,34	0,852
	Negatiboa	55	%65,48	31	%63,27	86	%64,66	
AB DENBORA	Ez dago daturik	5	%3,88	0	%0,00	5	%2,59	0,307
	<= 1 ordu	31	%25,00	19	%29,23	50	%25,77	
	< 3 ordu	102	%82,26	57	%87,69	159	%81,95	
	> 3 ordu	22	%17,75	8	%12,31	30	%15,46	
AB EGOKIA	Ez dago daturik	80	%62,02	36	%55,38	116	%59,79	0,431
	Bai	38	%77,55	20	%68,97	58	%74,36	
	Ez	11	%22,45	9	%31,03	20	%25,64	
BOLUMENA	Bai	79	%61,24	63	%96,92	142	%73,20	< 0.001
	Ez	50	%38,76	2	%3,08	52	%26,80	
BOLUMENA MONITORIZATU	Bai	0	%0,00	1	%1,59	1	%0,70	0,444
	Ez	79	%100,00	62	%98,41	141	%99,30	
BOLUMEN DENBORA	Ez dago daturik	0	%0,00	2	%3,08	2	%1,03	0,152
	< 3 ordu	64	%81,02	59	%96,73	123	%63,40	
	> 3 ordu	15	%18,98	2	%3,27	17	%8,76	
BASOPRESOREA	Bai	5	%3,88	57	%87,69	62	%31,96	< 0.001
	Ez	124	%96,12	8	%12,31	132	%68,04	
BASOPRESORE MOTA	Dopamina	4	%80,00	16	%28,07	20	%32,26	0,057
	Noradrenalina	1	%20,00	34	%59,65	35	%56,45	
	Biak	0	%0,00	7	%12,28	7	%11,29	

Sepsiaren tratamenduaren betetze maila eta bere eragin klinikoa larrialdi zerbitzu batean


DIURESIA NEURTU	Ez dago daturik	1	%0,78	1	%1,54	2	%1,03	< 0.001
	Bai	33	%25,58	42	%64,62	75	%38,66	
	Ez	95	%73,64	22	%33,85	117	%60,31	
DIURESIA >0,5ml/kg/ordu	Ez dago daturik	1	%0,78	0	%0,00	1	%0,52	0,077
	Bai	27	%81,82	26	%60,47	53	%69,74	
	Ez	6	%18,18	17	%39,53	23	%30,26	
BTA>65mmHg	Ez dago daturik	1	%0,78	2	%3,08	3	%1,55	0,612
